

METAMORFOSIA

Animalia askok jaioberritan ez dute izaten heldutan duten itxura eta gorputz-egitura bera. Arrautzatik atera berri den tximeleta-larbak, esate baterako, aldaketa nabarmenak jasaten ditu tximeleta heldu bihurtu arte. Hori da, hain zuzen ere, metamorfosis: hainbat animalia jaiotzen direnetik heldu izatera iritsi arteko bidea eta itxuraldaketa-multzoa.

Animalia erruleen artean oso prozesu arrunta da metamorfosis. Esate baterako, anfibioen eta intsektuen bizitza-zikloko berezitasun garrantzitsua da itxuraldaketa-prozesu hori. Anfibioen artean, apaburutik igel heldurainoko eraldaketa da adierazgarrienetarikoa. Intsektuen artean, berriz, tximeletaren metamorfosis da adibide argia.

Esan bezala, metamorfosis hainbat urratsetan gertatzen den prozesu bat da. Tximeletaren metamorfosis honako urrats edo fase nagusi hauek bereiz daitezke: beldarraren fasea, krisalidaren fasea eta heldutasun-fasea.

(B) Beldarrak, krisalida bihurtzeko, estalki bat sortzen du, eta harekin bilduz erabat estaltzen da. Krisalidak estalki horren barnean mugitu gabe hamabiren bat egun ematen ditu, eta bitarte horretan bere gorputzean aldaketa nabarmenak gertatzen dira. Nolabait esateko, estalkiaren barnean krisalidak tximeleta helduaren itxura hartzen du.



(A) Tximeleta emeak jarritako arrautza batetik ateratzen den harrari beldarra deitzen zaio. Kasu askotan, kolore berdea izan ohi du hasieran, eta poliki-poliki, kolorea arreoak hartu eta, zenbaitetan, iletsu bihurtzen da. Lore eta hostoak janez handitzen da pixkanaka, bi zentimetro inguruko luzera hartzen duen arte.



(C) Behar besteko denbora igaro ondoren, krisalidatik tximeleta ar edo eme eder bat aterako da, eta heldutasun-fasea hasiko da. Fase horrek hilabetetik bi hilabetera bitarte iraun dezake. Bere bizitzaren zikloko azken fase honetan, tximeleta helduaren zeregin nagusia ugaltzea izango da, eta ziklo berri bati hasiera emango dio horrela.





METAMORFOSIA



Testua irakurri ostean, erantzun ondorengo galderei. Gogoratu esaldi osoak egin behar dituzula; ez eman erantzun laburrik.

1. *Zer da metamorfosia?*
2. *Animalia guztiek egiten al dute metamorfosia? Aipatu gutxienez metamorfosia egiten duten bi animalia izenak.*
3. *Zeintzuk dira tximeletaren metamorfosiaren 3 fase nagusiak?*
4. *Nolakoa izaten da tximeleta-arrautzatik jaiotzen den beldarra?*
5. *Beldarra izatetik zuzenean tximeleta izatera pasatzen al da? Zergatik?*
6. *Zein izaten da tximeletaren zeregin nagusia heldutasun fasean dagoenean?*
7. *Azaldu tximeletaren metamorfosia zure hitzekin. Horretarako, fijatu zaitez irudian.*

